



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## Prentsa-oharra

---

# Amaitu da 2013ko Aurrekontu proiektuaren azalpen-prozesua Nekazaritzako, Kulturako eta Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatuen batzorderatzeakaz

Bilbon, 2012ko azaroaren 27a

Bilboko Batzar Nagusien egoitzan gaur amaitu dira aurrekontuaren inguruko argipideak emoteko azken hiru batzorde-saioak —Nekazaritza, Kultura eta Herri Lan eta Garraioetako Sailei buruzkoak— batzarkide-taldeei azaltzeko 2013. urterako Foru Aldundiaren aurrekontu proiektuaren araberrako jarduera-ildo nagusiak. Behin batzorde-saiok amaituta, Batzar Nagusietako Mahaiak zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabalduko dau.

Argipideetarako batzorderatzeak egiteko azken eguneko lehenengo saioan Irene Pardo Diputatu andrea izan da, Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritzako Sailaren arduraduna. Datorren urterako 29,7 milioiko aurrekontua izango dau Sailak, 2012an baino %19 gitxiago, orokorrean Aldundiaren aurrekontuak izan dauen murrizketeak behartuta.

Irene Pardok esan dau bere Sailaren kontuak nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta basogintzaren sektoreen laguntza zuzenetarako kredituak agertzen dituela. Horretara, bada, Sailaren lerro estrategikoakaz lotutako partidak gorantz egiten dabe, besteak beste nekazaritzako ingurumen-baldintzak bultzatzea —%28,2ko igoerea daukie— eta gazteei laguntzea, bai lehenengoz instalatzeko laguntzen bidez, bai inbertsino barrien bidez, bai Bizkaiko Nekazaritzaren Lurren Funtsa deritxonen banaketan bidez, azken horrek 60 hektarea gehiago izango ditu-ta.

Nekazaritzako Foru Diputatuak esan dau 2013ko aurrekontuak “agintaldirako gizarri diran erispide eta konpromisoetan” oinarritzen dirala “eta horrexegaitik uste dogu lan egiteko modurik egokiena dirala, bardin sektorea mantentzeari jagokonez zein gizarteari eta ingurumenari egiten deutsegun ekarpenari jagokonez”. Pardo andreak esan dau hiru dirala Sailaren aurrekontuaren zutabeak: “gazteak, esan gura dabelako sektorea mantendu, gaztetu eta bizkortu egingo dala jarduera ekonomikoaren bitartez; nekazaritzako ingurumen-baldintzak, inbertsinoa eta kudeaketea dakarrelako ingurumenaren mesedetan; eta Lurren Funtsa, lagundu egiten dauelako gazteak sektorera hurreratzen eta Bizkaiko lurak behar dan moduan kudeatuta egoten.”

Batzorde honetarako Alderdi Popularraren bozeroaleak, Arturo Aldecoa batzarkideak, galdetu egin deutso Diputatu andreari ea zergaitik igoten dauen %200ean Gorlizen dagoan Animalia Basatiak Sendatzeko Zentroari jagokon aurrekontuak. Pardo andreak



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

esan deutso albaitari zerbitzuak be sartzen dirala orain hor barruan, eta aurreko urteetan gastuok ez zirala Zentro horretako aurrekontuetan sartzen. PSEko eta Bilduko ordezkarien galderei erantzunez, Diputatu andreak argitu dau Bizkaiko mendiak mantentzeko eta zaintzeko behar besteko baliabide izango dala, hor barruan sarturik baso-suteei aurre hartzeko neurriak, Basalan soziedadegaz sinatutako hitzarmenari esker.

### KULTURA SAILEKO AURREKONTUAK, EUSKALDUNA JAUREGIA HANDITZEKO LANEN AMAIEREAK MARKATUTAKOAK

Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean izan dan hurrengo Diputatua Josune Ariztondo izan da, Kulturako Foru Diputatua. Sail horrek 46 milioi euro izango ditu 2013. urterako, aurtengo urterako baino 11,5 gitxiago. Horren arrazoia, beste gauza batzuen artean, Biltzarretarako eta Musikarako Euskalduna Jauregia handitzeko lanen amaiera izan da, 2012. urtean ia 10 milioiko partida izan dauena.

Kultura Zuzendaritza Nagusiak 24,7 milioi izango ditu ekimen ezbardinak kudeatzeko Kultur Ekintzan, Foru Liburutegian, Museo eta Zabalkundean, Ondarean, Arkeologian eta Foru Artxiboan. Sailaren aurrekontuetan nabarmendu egiten dira EUSKAL ANTZOKI arte eszeniko eta musika arloko udal programazinoei eskainitako laguntzak, erakunde publiko eta pribatuek antolatutako garrantzizko kultur jardueretarako laguntzak eta 5000 biztanletik beherako udalerrietako kultura jardueren programazinoarako laguntzak, %8ko gorakadea dabenak.

Kultura Zientifikoaren Katedran (KZK-UPV-EHU) laguntzeko partida be mantendu egiten da, baita Bizkaiko museoetarako dirulaguntzak eta Bizkaiko kultur ondasunak berreskuratzeke, zaintzeko eta balioan jarteko edota Kultur Ondarearen zabalkunderako museoetarako dirulaguntzak be. Horren ildotik, Elorrioko Argiñetako indusketetan ikerketa proiektuetarako eta arkeologi eta etnografi ikerketa proiektuetarako partidak be mantendu egiten dira. Ereñozarreko proiektua amaitu egin da eta, beraz, ez da horren ingurukorik agertzen 2013. urterako. Santimamiñerako eta Arrolarako partidak doitu egin dira.

Euskara Zuzendaritza Nagusiak 6.088.000 euroko aurrekontua izango dau 2013. urterako. Aurtengo urtekoaren aldean %17,7 murrizten dan arren, Zuzendaritzaren proiektu estrategikoak bete egingo dirala esan da. Datorren urterako aurrekontuan euskerearen eta euskal kulturearen zabalkunderako oinarritzkoak diran egitarauak aurrera eroan ahal izatea bermatuta geratuko da, esaterako Durangoko Euskal Diska eta Liburu Azokea eta Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketea. Teknologia barriei jagokenez, doitu egin da Azkue Fundazioaren aurrekontua, baina segurtatuta geratuko dira datorren urterako aurreikusitako ekimenak gainontzeko patronoen eta parte hartzaileen lankidetzagaz. Sarean euskerearen erabilera sustatzeko materiale teknologiko barriak sortzeko IKT deritxenen deialdia egingo da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Batzar Nagusietako Bildu Taldea kritikoa izan da galderak egiteko txandan, Euskara Zuzendaritza Nagusiaren aurrekontuaren murrizketea dala-ta. Miren Dobaran Zuzendariak erantzun deutse esanez ahalegin handiak egiten dituala Aldundiak Bizkaian hizkuntzaren normalizazinoa lortzeko eta herritaren hizkuntza eskubideak aldezteko, eta aitatu dau gora egin dauela itzulpenetarako gastuak.

## HERRI LAN ETA GARRAIOETAKO SAILAREN AURREKONTUAK

Bilborako sarbide barriak eta Autzaganeko eta Bermeoko saihebidak Herri Lan eta Garraioetako Sailaren lehentasunak dira 2013. urterako, Itziar Garamendi Diputatuaren esanetan. Azkena izan da Garamendia andrea Aldundiaren aurrekontuak azaltzeko bere Sailari jagokozanen argipideak emoten.

Sailaren aurrekontua 2013. urterako 289,6 milioikoa da, 2012. urtean baino %8,2 gitxiago, baina Bizkaiko Foru Aldundiaren konpromisorik garrantzitsuenei aurre egiteko balioko dabela esan dau Diputatuak, hau da, errepide-sarea hobatzeko eta Bizkaibus zerbitzua mantentzeko.

Herri lanei jagokenez, datorren urterako gauzarik garrantzitsuenak izango dira San Mames ondotik doazen Bilborako sarbide barriak amaitzea, aurtengo udaroan hasitako Autzaganeko eta Bermeoko saihebidak eregitea eta Durango- Beasain ardatzaren zati izango dan Gerediaga-Elorrio errepide barria eregitea.

Aurrekontuokaz bideak neguan modu egokian mantentzeko plana —datorren urterako baliabide gehiago izango dira horretarako— eta foru sareko errepideak mantendu eta hobatu be egin ahal izango dira. Hobakuntza lanon artean hurrengook aitatu dira: Berrizeko Eitua poligonorako sarbideak berrantolatzea, Kortederra eta Boroa artean bidesegurtasuna hobatzea, N-240 errepidean Bedia eta Lemoa artean bidesegurtasuna hobatzea, Malmasineko tunelak egokitzea, N-634 errepidean Etxebarriko oinezkoentzako pasabidea, Andrakako biribilgunea, AP-68 autopistea BI-625 errepideagaz lotzeko biribilgunea, Asteinza-Maruri zatia hobatzea, eta beste hobakuntza lan batzuk, esaterako Natxituan eta Angelutxun, Erandioko Lutxanan eta BI-3302 errepidekoak Mallabian.

Garraioen aginpideei jagokenez, orokorrean murriztu egin dira Metrorako, Garraioen Partzuergorako, FEVERako eta Bizkaibuserako partidak, 2012. urtean 129 milioi izatetik 121 milioi izatera gitxitu diralako. Hata guzti be, zerbitzuok eta Aldundiaren konpromisoak mantentzeko kopuru hori nahikoa izango da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## Nota de prensa

# Concluye el proceso informativo del proyecto de presupuestos de 2013 tras comparecer los responsables de Agricultura, Cultura y Obras Públicas y Transportes

**Bilbao, 27 de noviembre de 2012.**

La sede de las Juntas Generales de Bizkaia en Bilbao ha sido escenario hoy de las tres últimas comisiones informativas, - correspondientes a Agricultura, Cultura y Obras Públicas y Transportes - para explicar a los grupos junteros las líneas generales de actuación de cada departamento en base al Proyecto de Presupuestos de la Diputación Foral para el año 2013. Con la finalización de estas sesiones, la Mesa del parlamento vizcaíno abrirá el período de presentación de enmiendas.

La primera comparecencia de la última jornada de comisiones informativas en Juntas Generales, celebrada hoy, ha estado protagonizada por Irene Pardo, titular del departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia, que el próximo año dispondrá de un presupuesto de 29,7 millones de euros, un 19% menos que en 2012, en sintonía con el ajuste presupuestario foral global.

Irene Pardo ha explicado que las cuentas de su departamento se inclinan por los créditos de apoyo directo al sector agrícola, ganadero y forestal. De este modo, aumentan las partidas relacionadas con las líneas estratégicas del departamento, como son las medidas agroambientales, que registran una subida del 28,2%, y el apoyo a los jóvenes, bien mediante el fomento de la primera instalación, por nuevas inversiones o por los repartos del Fondo de Suelo Agrario de Bizkaia o Banco de Tierras del Territorio Histórico, que incorpora 60 hectáreas más.

La Diputada de Agricultura ha explicado que los presupuestos de 2013 responden a “criterios y compromisos de legislatura claves y por eso creemos que son la mejor manera de trabajar, tanto por el mantenimiento del sector como por la contribución social y medioambiental”. Pardo ha justificado los tres pilares de las cuentas, asegurando que “los jóvenes significan mantenimiento, rejuvenecimiento, dinamismo y actividad económica; las ayudas agroambientales, inversión y gestión para la conservación del entorno; y el Banco de Tierras contribuye a todo ello: a favorecer la incorporación de jóvenes al sector y a que la tierra de Bizkaia esté gestionada”.

El portavoz del Partido Popular en esta comisión, Arturo Aldecoa, ha preguntado a la responsable foral por el aumento del 200% en el presupuesto destinado al Centro de Recuperación de Fauna de Gorliz, que Irene Pardo ha justificado por los servicios veterinarios que no estaban incluidos anteriormente en los gastos de este centro de referencia. A preguntas de los portavoces de PSE y Bildu en la comisión, la Diputada ha garantizado también recursos suficientes para el mantenimiento y conservación de los



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

montes de Bizkaia, incluidas las medidas de prevención contra incendios forestales, a través del convenio suscrito con la sociedad Basalan.

## PRESUPUESTOS DE CULTURA, MARCADOS POR EL FIN DE LAS OBRAS DE AMPLIACIÓN DEL PALACIO EUSKALDUNA

La siguiente titular en comparecer en la Comisión de Economía y Hacienda ha sido Josune Ariztondo, Diputada de Cultura, departamento que en 2013 dispondrá de un presupuesto de 46 millones de euros, un 11,5% menos que el año anterior. Esta caída se debe, entre otras causas, a la conclusión de las obras de la ampliación del Palacio de Congresos y de la Música Euskalduna, que en 2012 ha contado con una partida de casi 10 millones de euros.

La dirección de Cultura contará con 24,7 millones para gestionar actuaciones en Acción Cultural, Biblioteca Foral, Museos y divulgación, Patrimonio, Arqueología y Archivo Foral. En los presupuestos de este departamento destaca el apoyo a programaciones municipales de artes escénicas y musicales EUSKAL ANTZOKI, las ayudas a la programación de actuaciones culturales de especial relevancia (entidades públicas y privadas), así como las ayudas a la programación de actividades culturales en ayuntamientos de menos de 5.000 habitantes, con un incremento de un 8%.

También se mantiene la partida para colaborar en la Cátedra Divulgación de la cultura científica (KZK-UPV-EHU), así como las subvenciones a los museos de Bizkaia y aquellas destinadas a difundir el Patrimonio Cultural y a recuperar, conservar y poner en valor los bienes culturales del Territorio. En este sentido, se mantienen las partidas para los proyectos de investigación en las excavaciones de Argiñeta (Elorrio), así como para los proyectos de investigación arqueológica y etnográfica. Finaliza el proyecto de Ereñozar, por lo tanto, no se presupuesta este apartado en 2013 y se ajustan las partidas para Santimamiñe y Arrola.

La Dirección de Euskara dispone de un presupuesto de 6.088.000 euros en 2013. Si bien la bajada es de un 17,7%, se asegura el cumplimiento de los proyectos estratégicos. En el presupuesto del próximo ejercicio se asegura la ejecución de programas fundamentales para la difusión del euskara y la cultura vasca como la Feria de Libro y Discos de Durango y la “Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa”. En cuanto al apartado de las nuevas tecnologías, se ajusta el presupuesto de Azkue Fundazioa si bien se aseguran los programas de actuación previstos para el año próximo mediante la colaboración del resto de patronos y participantes en la entidad. Con el objetivo de crear nuevos materiales tecnológicos para impulsar el uso del euskera en la red, se realizará la convocatoria de las IKTs.

El grupo de Bildu en Juntas Generales ha sido crítico en su turno de preguntas con esta caída del presupuesto de la dirección de euskera, cuya directora, Miren Dobaran, ha subrayado el gran esfuerzo que está realizando la Diputación en la normalización



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

lingüística del territorio y en la defensa de los derechos lingüísticos de la ciudadanía, destacando en este punto el incremento de los gastos en traducción.

## PRESUPUESTOS DE OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

Los nuevos accesos a Bilbao y las variantes de Autzagane y Bermeo son las prioridades del Departamento de Obras Públicas y Transportes en 2013, según ha explicado la Diputada Itziar Garamendi, encargada de cerrar las comisiones informativas previas a la presentación de enmiendas a los nuevos Presupuestos de la Diputación Foral.

El proyecto de presupuestos del Departamento para el año 2013 alcanza la cifra de 289,6 millones de euros. Esta cantidad, aunque supone un descenso del 8,2% con respecto a 2012, permitirá atender los compromisos más importantes de la Diputación Foral de Bizkaia como son la mejora de la red de carreteras y el mantenimiento del servicio de Bizkaibus.

En materia de Obras Públicas, los objetivos más importantes para el próximo año son la apertura de los nuevos accesos a Bilbao por San Mamés, la construcción de las variantes de Autzagane y Bermeo, iniciadas este pasado verano, y la construcción de la nueva carretera Gerediaga-Elorrio, perteneciente al eje Durango- Beasain.

Este presupuesto permitirá también el despliegue del plan de vialidad invernal, que en esta campaña aumenta sus recursos, y la realización de las tareas habituales de conservación y mejora de la red de carreteras. Entre estas obras de mejora se incluyen la reordenación de accesos en el polígono Eitua de Berriz, la mejora de seguridad vial entre Kortederra y Boroa, la reordenación de accesos y mejora de la seguridad vial de la N-240 entre Bedía y Lemoa, las obras de adecuación de los túneles de Malmasin, la pasarela peatonal de Etxebarri en la N-634, la rotonda de Andrakas, la rotonda de conexión AP-68 con la BI625, las obras de mejora de Asteinza-Maruri, las obras de mejora en Natxitua y Angelutxu, las de Lutxana en Erandio, así como la de la BI-3302 en Mallabia.

En el ámbito de las competencias de Transportes, en conjunto, bajan ligeramente las partidas previstas para Metro, Consorcio de Transportes, FEVE y Bizkaibus, pasando de 129 millones de euros a 121 millones. No obstante, esta cantidad es suficiente para el mantenimiento de los servicios y los compromisos de la Diputación en esta materia.